

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK 2019KO MAIATZA

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak %6,6 gehitu ziren 2019ko maiatzean

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera harturik, %4,0ko gehikuntza izan da gualdietan maiatzean

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak 2019ko maiatzean 26.548 izan ziren, 2018koaren aldean %6,6ko gehikuntza.

Bizkaian %22,0 gehitu ziren gualdiak eta Araban %1,3, baina Gipuzkoan %4,9 jaitsi ziren..

2019ko maiatzean 7.523 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko apartamentu turistikoetan, %7,3ko gehikuntza. Bidaiari-sarrerak %30,5 gehitu dira Bizkaian, baina %3,4 murriztu dira Gipuzkoan eta %29,7 jaitsi dira Araban.

Gualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal Aeko apartamentu turistikoetan. 2019ko Maiatza

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2019/05	m/m-12 (%)	2019/05	m/m-12 (%)	2019/05	2018/05
EUSKAL AE	26.548	6,6	7.523	7,3	3,53	3,55
Estatukoak	16.927	3,1	4.806	13,3	3,52	3,87
Atzeritarrak	9.621	13,3	2.717	-1,7	3,54	3,07
ARABA/ÁLAVA	7.037	1,3	890	-29,7	7,91	5,49
Estatukoak	5.125	-13,5	813	-28,6	6,31	5,21
Atzeritarrak	1.912	87,3	77	-39,7	24,78	7,98
BIZKAIA	11.043	22,0	4.182	30,5	2,64	2,82
Estatukoak	6.736	28,9	2.682	47,6	2,51	2,88
Atzeritarrak	4.307	12,5	1.500	8,0	2,87	2,76
GIPUZKOA	8.468	-4,9	2.451	-3,4	3,46	3,51
Estatukoak	5.066	-3,8	1.311	1,8	3,87	4,09
Atzeritarrak	3.402	-6,6	1.140	-8,7	2,98	2,92

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldia, maiatzean, 3,53 egunekoa izan da, 2018ko maiatzean 3,55 zelarik. Araban iazko 5,49 egunetik aurtengo maiatzeko 7,91ra luzatu da; Bizkaian 2,82tik 2,64ra laburtu da; Gipuzkoan 3,51tik 3,46ra laburtu da.

2019ko maiatzeko turista-balantzea: sarrerak gehitu dira %2,7 eta gualdiak %4,0

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentuak batera, 318.266 sarrera erregistratu dira 2019ko maiatzean, %2,7ko gehikuntza dena aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian Euskal AEko sarrera guztien %47,2 kontzentratzen dira, eta sarreren batura %4,4 gehitu da. Gipuzkoan erkidegoko sarreren %39,7 daude, %4,2ko gehikuntzarekin. Arabak Euskal AEko sarreren %13,1 ditu, eta %6,8 jaitsi dira.

Gualdiek, establezimendu turistiko hartzaileen orotarakoan, %4,0 egin dute gora. Gipuzkoan %5,9 igo dira gualdiak, Bizkaian %3,1 eta Araban %1,1.

Gualdiak eta sarrerak Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2019ko Maiatza

	Gualdiak		Sarrerak	
	2019/05	m/m-12 (%)	2019/05	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	634.258	4,0	318.266	2,7
Araba/Álava	85.075	1,1	41.571	-6,8
Bizkaia	288.699	3,1	150.258	4,4
Gipuzkoa	260.484	5,9	126.437	4,2

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62